

**Komunikabideei prentsurrekoan aurkeztuko zaien komunikatuaren bitartez, hauteskunde-kanpainaren aurrean duten jarrera kritikoa erakutsi nahi dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako M15Mek.**

Bilbo, 2012ko urriaren 4a

M15Mrentzat erronka handia da autonomia-hauteskunde hauei aurre egitea. Batetik, ordezkari politiko deitzen ditugun horiek benetan demokratikoa izatetik urrun dagoen eta erabat amorala den sistema soziopolitiko elikatu dutela deritzogu. Herritarrak zaindu, errespetatu eta horien zerbitzura egoteko zeregina alde batera utzi dute, salgai bilakatu gaituzte eta botere ekonomikoaren esku utzi. Bestetik, hastear dagoen hauteskunde-kanpaina honetan, politikaren zentzua bera degradatu duten alderdi berberetako hautagaiek laguntza eta konfiantza eskatuko digute, nola eta herritarren benetako parte-hartzeari edo eztabaida publikoari lekuri utziko ez dion prozesu baten bitartez.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jo dugu geroko kargu politiko hautetsiei larrialdiko neurri-sorta bat komunikatzea. Neurri horiek berehala abiarazi behar dituzte, hautagaiek eskuratu nahi dituzten erakunde eta kargu berberak Euskadiko herritarrei jasanarazten dizkieten bidegabekeriak errotik kentze aldera. Komunikatuan zehaztuta dauden neurriek esker, politika bere onera ekarri nahi dugu, hau da, bizikidetzaren eta herritarren zerbitzua izatera. Era berean, garrantzi handiko gaietan zuzenean parte-hartzeko bideak irekitzea ere lortu nahi dugu, bai eta bestelako gizarte-antolamendu moduen eta, egungo sistema ekonomiko eta politikotik kanpoko alternatiba herritarren alde egitea. Horretarako, dei egiten diegu instituzioei eta gizarte-eragileei, inposatzen zaizkigun bidegabeko arauen aurrean desobediencia balia dezaten eta, herritarrek desobediencia hori gauzatu beste aukerarik ez dutenean, kriminalizatu ez ditzaten.

Azpimarratu nahi dugu ez dugula lehendakari izan nahi: dagozkien eskubide politikoak baliatzen dituzten herritar aktibo eta kontzienteak izan nahi dugu.

[m15mbidasoa@gmail.com](mailto:m15mbidasoa@gmail.com)

[tolosa15m@gmail.com](mailto:tolosa15m@gmail.com)

[m15mbizkaia@gmail.com](mailto:m15mbizkaia@gmail.com)

[acampadadonostia@gmail.com](mailto:acampadadonostia@gmail.com)

<http://acampadagasteiz.com/>

**El comunicado que se presenta ante los medios de comunicación en rueda de prensa nace de la intención del M15M de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa de mostrar su postura crítica ante la campaña electoral.**

Bilbao, 4 de octubre de 2012

Para el M15M es todo un reto enfrentarnos a estas elecciones autonómicas. Por un lado, consideramos que los llamados representantes políticos han contribuido a alimentar un sistema sociopolítico que, lejos de ser realmente democrático, es profundamente amoral. Han abandonado su deber de custodia, de respeto y de servicio a la ciudadanía para convertirnos en moneda de cambio en manos de los poderes económicos. Por otro lado, en esta campaña electoral que está a punto de comenzar, las y los candidatos, de los mismos partidos políticos que han degradado el sentido de la política, volverán a pedir un voto de apoyo y confianza a las y los ciudadanos, a través de un proceso donde no se da espacio ni a una participación ciudadana ni a un debate público verdaderos.

Por ese motivo, consideramos necesario comunicar a las y los futuros cargos políticos electos una serie de medidas de urgencia que deben poner en marcha inmediatamente para detener el atropello al que las mismas instituciones y los mismos cargos a los que aspiran están infligiendo a las y los ciudadanos vascos.

Mediante las medidas que se detallan en el comunicado, pretendemos que la política vuelva a ser el arte de la convivencia y del servicio a la ciudadanía, que se abran vías de participación directa en temas de calado y que se apueste por formas de organización social diferentes y por alternativas ciudadanas al sistema económico y político actual. Para conseguirlo, animamos a las instituciones y a los actores sociales a ejercer la desobediencia ante las normas injustas que se nos imponen y a no criminalizar a la ciudadanía cuando no le quede más remedio que ejercerla ella misma.

Queremos recalcar que no queremos ser lehendakaris: queremos ser ciudadanas y ciudadanos activos y conscientes que ejercitan sus derechos políticos.

[m15mbidasoa@gmail.com](mailto:m15mbidasoa@gmail.com)  
[tolosa15m@gmail.com](mailto:tolosa15m@gmail.com)  
[m15mbizkaia@gmail.com](mailto:m15mbizkaia@gmail.com)  
[acampadadonostia@gmail.com](mailto:acampadadonostia@gmail.com)  
<http://acampadagasteiz.com/>